

## Duela 41.000 urte neandertalek hildakoak hobiratzen zituztela baieztatu dute

La Ferrasie 8 deitutako gizakiaren fosilen azterketan oinarrituta, ikertzaileek baieztatu dute duela 41.000 urte La Ferrasie aztarnategiko neandertalek (Dordoina, Frantzia) bazituztela hileta-errituak eta hildakoak hobiratzen zituztela.

Hiletaren inguruko praktikek aztarna garrantzitsuak ematen dituzte gizaki modernoaren gaitasun kognitiboaren eta portaeraren jatorria ulertzeko. Azken urteotan, eztabaidagai izan da neandertalek hildakoak hilobiratzen ote zituzten edo hileta-erriturik ote zuten. Orain, La Ferrasien egindako azterketak baieztatu du ikertutako banakoa hobiratu izan zela, nahita zulatutako hobi batean. Horrez gain, testuinguru arkeologikoari buruzko informazio ugari bildu dute ikertzaileek.

[Scientific Reports aldizkarian argitaratu dituzte emaitzak](#), eta Asier Gomez Olivencia EHUko paleontologo eta Aranzadi Zientzia Elkarteko kidea da egileetako bat. Hain zuzen, [lehen ere ikertu ditu La Ferrasieko fosilak](#). Artikuluan gogorarazi dutenez, La Ferrasiekoa neandertalen aztarnategi esanguratsuenetako bat da. XX. mendearen hasieran, sei hezurdura aurkitu zituzten han, eta beste bat 1970eko hamarkadan. Azken horri La Ferrasie 8 deitu zioten, eta bi urte inguruko haur batena da. Hezurdura horren aurkikuntza eta testuinguru oro har gaizki dokumentatuta zeudela uste zuten, baina aztarna eta informazio pila bat jaso zuten, eta oraingo azterketak emaitza baliotsuak eman ditu.

Askotariko diziplinak eta iturriak erabilia, jakin dute, besteak beste, haurraren eskeletoa men-debalderantz okertuta zegoela (inguruneke beste geruza estratigrafikoek ipar-ekialderanzko malda



1970eko hamarkadan aztarnategian bildutako materialean aurkitu dituzte haur neandertalaren beste 47 fosil.

ARG.: Antoine Balzeau/CNRS/MNHN.

dute). Ikertzaileen esanean, ez dago diferentzia hori azalduko duen inolako hipotesi naturalik; hau da, neandertalek nahita prestatu zuten zuloa. Gainera, geruza berean aurkitu diren bisonte baten eta beste belarjale batzuen hezurak baino hobeto kontserbatuta daude neandertalarenak; horrek adierazten du hil eta berehala lurperatu zutela.

Helduen hezurdurak osorik dauden arren, haurrenei hezur batzuk falta zaizkie; baita La Ferrasie 8ri ere. Zenbait hipotesi eman dituzte hori azaltzeko, baina ez dute ebidentzia nahikorik ontorio sendo bat izateko. Edozein modutara, karbono-14aren bidez zuzenean datatu dute hezurretako bat, eta frogatu dute 41.000 urte inguruko antzintasuna duela. Hala, datazio zuzena duen neandertal berriena da, eta, gainera, Saint-Césaire eta Grotte du Renne aztarnategietako neandertalen garai berekoa (biak Frantzian). Hori guztia lagungarria da hobeto jakiteko [noiz desagertu ziren neandertalak eta zer portaera kultural eta adierazpen sinboliko zituzten](#). ●